

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 474/2016 Erabakia, uztailaren 27koa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzen baitira, sistema multimodal integratu eta elektrifikatuaren bidez Gasteizko garraio publikoaren eskaintza egokitzeko proiektuak idazteko hitzarmenaren Jarraipen Batzorderako

Sistema multimodal integratu eta elektrifikatuaren bidez Gasteizko garraio publikoaren eskaintza egokitzeko proiektuak idazteko hitzarmenak, Arabako Batzar Nagusien urtarrilaren 20ko 1/2016 Foru Arauaren bidez berretsiak, bosgarren klausulan aurreikusi zuen Jarraipen Batzordea sortzea.

Diputatuen Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKIA

Lehenengoa: jarraian adierazi diren pertsonak Arabako Foru Aldundiaren ordezkari izendatzea sistema multimodal integratu eta elektrifikatuaren bidez Gasteizko garraio publikoaren eskaintza egokitzeko proiektuak idazteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordean (Foru Administrazioaren partaidetza duten Erakundeen Erregistroko 368. zenbakia).

— M^ª. Pilar García de Salazar Olano, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua, titular gisa.

— Jesús María López Ubierna, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua, titular gisa.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2016ko uztailaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN